

MIKEL ZARATEREN omenaldia,

Lezama, 2004-IV-01

*Jean Haritschelhar,
eukaltzainburua*

Lezamako alkate jauna, jaun-andereak, arratsalde on.

Badakizue zertarako bilduak garen egun hemen, joan den ortziralean egin beharra, bainan joan gara kide baten laguntzerat, bere azken egoitzara. Eta hain zuzen, joan den ingandean ere Arruazun ginen, omenaldi bat egiten baitzioten arrazuarrek Jose Mari Satrustegiri, badu urte bat zendu dela eta beraz, igandean, egin da omenaldi hori. Ni uste dut omenaldi horiek beharrezkoak direla. Guk oroitzapen horiek behar ditugu aitxiki, euskal memoriak ere berea behar du eta dudarik gabe hemen nahi nituzke alde batetik eskertu Mikel Zarateri buruz eginikako omenaldi hau, hilabete oso baten omenaldia izan baita, eztaikit zonbait ekitaldi egin dituzuen hemen, beti gogo hartuz Mikel Zarate. Anitzek bezala nik ere ezagutu dut Mikel, badakit zer lan egin duen, nola nahi zuen bultzatu euskara batua, bereziki, anaitasunean, bainan sekulan arbuiatu gabe bere euskalkia. Guk ere hala egiten baititugu eta Euskaltzaindiak ez baitu sekulan arbuiatu, ez baititu sekula arbuiatu euskalkiak, baina bai ikusten baitzuen holako hizkuntza amankomun bat beharrezkoa zela, hori bat azkenean euskaldun guzien arteko lokarria. Eta beraz, emeki-emeki, poliki-poliki, bere bidea segitzen du euskara batu horrek, bai komunikabideetan, baita ere gure idazleetan, eta emeki-emeki, poliki-poliki, bere bidea segitu du. Pentsatuz lehenbizikoak hor zirela eta lehenbiziko horietan Mikel Zarate bat bazela. Ez naiz gehiago mintzatuko, zeren eta beste batzuk mintzatu beharrak baitira horri buruz.

Nik bakarrik zorionak emanen dizkiok Lezamako herriari eta dudarik gabe ere *Zorritzketan* izan diren guzietan, zeren eta holako omenaldi baten egiteko behar da egin lan eta dudarik gabe hori egin duzue.

Eta azkenik, Lezamako alkate jaunari eta Lezamako zinegotzietan ere, zeren eta heien babesarekin egin baita omenaldi hau.

Nik uste dut gogoak aitxiki behar ditugula guk baino lehenago euskaraz arduratu direnez eta ere pentsatuz haiek egin duten bidea guk segitu behar dugula eta gure ondokirik iristen direnek ere segituko dutela.

Eskerrik asko.